

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA IKAZTEGIETAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMEN EREDUA, OINARRIZKO ADMINISTRAZIO-ESPEDIENTEAK EsKuA ESPEDIENTEEN KUDEATZAILEAN EZARTZEKO

ELKARTU DIRA

Alde batetik, Felix Urkola Iriarte jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentuko diputatu gisa, Diputatuen Kontseiluak 2025eko irailaren 23ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez ahalmenduta.

Bestetik, Alba Garmendia Castañós anderea, Ikaztegiako Udaleko alkate gisa.

Bi alderdiek hitzarmen hau sinatzeko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri, eta, hori dela eta,

AZALTZEN DUTE

LEHENENGO.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko, apirilaren 7ko, 2/2016 Legeak (ETEL) 17.1.30 artikuluan xedatzen duenez, udalerriek eskumen propioak baliatu ahal izango dituzte honako arlo hauetan: teknologia berrietara sartzeko egiturak antolatzea eta kudeatzea; administrazio elektronikoa; prozedurak arrazionalizatzea eta sinplifikatzea; eta, bereziki, udalerrian herritarrek informazioaren eta komunikazioen teknologien erabilera eraginkor eta iraunkorrean parte har dezaten sustatzea.

BIGARREN.- Lurraldeko udalek funtsezko zeregina betetzen dute herritarrekiko hurbiltasuna eta harreman zuzena dutelako, bai eta funtsezko zerbitzu publikoak emateko erantzukizuna dutelako ere. Hurbiltasunak funtsezko eragile bihurtzen ditu, lurraldetik eraldaketa digitala bultzatzeko. Udaletan, administrazio elektronikoa eta administrazio prozedura elektronikokoak dira eraldaketa digitalaren dimentsio nabarmenenetako batzuk, herritarrek, elkarte sareak eta enpresa-sektoreak tokiko erakundeekin bitarteko digitalen bidez harremanak izatea ahalbidetzen baitute.

Hala ere, erronka garrantzitsuei ere egin behar diete aurre, batez ere udalerrri txikietan edo baliabide mugatuak dituzten udalerrietan. Izan ere, murrizketa ekonomikoek, teknikoek eta langile arlokoek teknologia digitalak eraginkortasunez eta modu iraunkorrean hartzea zaildu dezakete.

HIRUGARREN.- Egoera honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtzioak funtsezko papera hartzen du. Autonomia Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Ihardutza Erakundeen arteko harremanei buruzko, azaroaren 25eko, 27/1983 Legearen 7.a.5 artikulua foru-organoei esleitzen die toki-erakundeei laguntza eta aholkularitza teknikoak emateko eskumen eskusiboa.

Era berean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 36.1 artikulua ezartzen duenez, Aldundiaren berezko eskumenen artean dago udalerriei laguntza eta lankidetzatza juridiko, ekonomiko eta teknikoak ematea, batez ere, ekonomia- eta kudeaketa gaitasun txikiena dutenei, eta, bereziki, 20.000 biztanletik beherako udalerrietan administrazio elektronikoko zerbitzuak ematea.

LAUGARREN.- Legeak aitortzen du herritarrek eskubidea dutela Administrazio Publikoekin elektronikoki harremanak izateko, eta Administrazio Publikoek eskubide hori egikaritu ahal izateko behar diren bitarteko eta sistemak izateko betebeharra dutela. Horrela, administrazio-prozedurei dagokienez, izapidetze elektronikoa Administrazio Publikoen ohiko jardura izan behar du. Administrazioen funtzionamendu erabat elektronikoa efikazia- eta efizientzia-printzipioei laguntzen die, eta segurtasun juridikoa eta pertsona interesdunen bermeak indartzen ditu, gardentasuna erraztuz, informazio puntuala, arina eta eguneratua ahalbidetuz. Eta hala jasotzen da, funtsean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren, urriaren 1eko, 40/2015 Legean.

BOSGARREN.- Administrazio publikoan eraldaketa digitala prozesu integrala eta sakona da, eta berekin dakar teknologia digitalak txertatzea eta estrategikoki erabiltzea, erakunde publikoek beren baliabideak eta zerbitzuak kudeatzeko eta herritarrekin harremanetan jartzeko duten modua aldatzeko. Beraz, zerbitzuak, antolamendua eta prozesuak hasieratik birpentsatu behar dira, eta teknologia digitalak baliatu behar dira aldaketa disruptiboa sortzeko eta antolaketa-, kultura- eta eragiketa ereduak berriz diseinatzeko.

SEIGARREN.- Eskumen horiek baliatuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzu informatikoak eskaintzen dizkie udalei eta Lurralde Historikoko beste toki erakunde batzuei, Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte - Sociedad Foral de Servicios Informáticos SA (aurrerantzean IZFE SA) foru sozietate publikoaren bidez, Foru Aldundiaren bitarteko propio pertsonifikatua dena.

Arlo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, bideratzaile teknologiko gisa ez ezik, administrazio digital eta berritzaile baten garapenean lurralde-kohesioa, -inklusioa eta ekitatea bermatzen ditu. Funtsezkoa da eraldaketa digitala udalerrri txikienetara ere iritsiko dela bermatzeko, eten digitalak lurraldeen arteko desberdintasunak areagotu ez ditzen.

ZAZPIGARREN.- Kontuan izan behar dugu, sektore publikoa tokiko eremuan digitalki eraldatzeko prozesu hori sendotu eta aurrera egin ahal izateko, ezinbestekoa dela estrategia bateratu eta koordinatu baten barruan egituratzea, non administrazioaren maila bakoitzak — udalerrri handietatik hasi eta txikienetaraino, Aldundiraino — modu osagarrian jardun behar duen, baliabideak, gaitasunak eta etorkizunerako ikuspegi amankomuna partekatuz.

ZORTZIGARREN.- Administrazio elektronikoen esparruan, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiak toki erakundeen eskura jartzen du EsKuA izeneko espedienteen kudeatzailea.

Tresna horrek espedienteak definitzeko eta elikatzeko alde aurreko lana eskatzen du, erabili aurretik edukiz hornituz, eta dagoen esperientziak agerian utzi du udal txikietan lan hori egiteko dagoen zailtasuna.

BEDERATZIGARREN.- Zailtasun horri erantzuteko, beharrezkotzat jo zen Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentuak udal txikientzako, 4.000 biztanletik beherako udalerrriak, oinarrizko espedienteak era amankomunean egin eta definitzea, etorkizunean horiek ezartzeko. Espediente-mota berdinak udaletan ere antzera izapidetzeak segurtasun juridiko handiagoa eta zerbitzuak eraginkortasun handiagoz ematea ahalbidetuko luke, belaunaldien arteko erreleboaren eta

udaletako langileen mugikortasunaren aurrean. Kontuan izan behar da udalerrri txiki horietako batzuetan zerbitzu jakin batzuk mankomunitateen bidez ematen direla, kasu honetan, gizarte-zerbitzuen esparruan.

Horretarako, oinarrizko 20 espediente hautatu ziren, eta EsKuAn definitu dira, dagozkien izapide eta plantillekin.

HAMARGARREN.- Une honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta 4.000 biztanletik beherako udal eta mankomunitateek batera egin nahi dute aurrera eremu horretan, administrazio prozedurak modu elektronikoan ezarriz eta definitutako oinarrizko espedienteak EsKuAn eskuragarri jarri.

HAMAIKAGARREN.- IZFE SA arduratuko da azpiegitura informatikoko eta laguntza teknikoko zerbitzuak emateaz, 4.000 biztanletik beherako udalerrietan eta mankomunitateetan administrazio elektronikoan aurrera egiteko.

HAMABIGARREN.- Eskura dauden bitartekoen efizientzia eta efikazia ahalbidetzeko, horien koordinazio egokia ziurtatzeko eta parte hartzen duten udalen plangintza errazteko, hitzarmena sinatzeko erabakia Bide Azpiegiturarako eta Lurralde Estrategiako Departamentuari jakinarazteko azken eguna 2025eko urriaren 31 izango da.

Azaldutako guztia dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ikaztegietako Udalak adosten dute hitzarmen hau izenpetzea ondoren aipatzen diren klausulen arabera

KLAUSULAK

LEHENENGOA. OBJKTUA

Hitzarmenaren objektua izango da EsKuAn definitu diren oinarrizko espedienteak ezartzea, gehienez ere 20 espediente, dagozkien izapide eta plantillekin. Espedienteak muntatu eta langileak prestatuko dira, horiek erabiltzeko.

Ezarriko diren espedienteak hauek dira:

	ALORRA	ESPEDIENTEA
1.-	Hirigintza	Obra handietarako lizentzia
2.-	Hirigintza	Obra txikietarako lizentzia
3.-	Hirigintza	Lehen erabilerarako lizentzia
4.-	Hirigintza	Hirigintzako kontsultak
5.-	Hirigintza	Obra txikien aurretiazko komunikazioa
6.-	Hirigintza	Hirigintzako obrak legeztatzea edo antolamendua leheneratzea
7.-	Hirigintza	Partzelazio, banantze eta elkartzeko lizentzia
8.-	Hirigintza	Hertsatzeko isuna jartzea exekuzio agindua ez betetzeagatik
9.-	Ogasuna	Zerga-hobari edo salbuespenen eskaera
10.-	Jarduerak	Jarduera sailkatuen aurretiazko komunikazioa

11.-	Jarduerak	Jarduera sailkatuen lizentzia
12.-	Jarduerak	Jardueren titulartasun aldaketa
13.-	Errolda	Erroldan ofiziozko baja ematea
14.-	Kontratazioa	Kontratu txikiak
15.-	Kontratazioa/ Hirigintza/Ondarea	Fidantza itzultzea
16.-	Dirulaguntzak	Euskara ikasteko dirulaguntzak
17.-	Gizarte Zerbitzuak	GLL (Gizarte Larrialdiko Laguntza)
18.-	Gizarte Zerbitzuak	Etxez etxeko laguntza
19.-	Gizarte Zerbitzuak	Desgaitasuna dutenentzako aparkatzeko txartelak
20.-	Zerbitzu Publikoak	Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko baimenaren eskaera

BIGARRENA. KONPROMISOAK

1. Toki-erakundeak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Proiektuaren arduraduna izendatzea (idazkari kontuhartzailea, alkatea, zinegotzia, presidentea).
- EsKuAko administratzailea izendatzea.
- Proiektuak eskatzen duen EsKuAko administratzailearen dedikazioa erraztea eta bermatzea.
- EsKuA erabiltzen duten toki erakundeko langileek proiektuan jasotako prestakuntzan parte har dezaten erraztea eta bermatzea.
- Proiektuan ezartzen diren eta proiektua garatzea ahalbidetuko duten zereginak eta jarduketak garatzen eta gauzatzen laguntzea.
- Toki erakundean EsKuA-n ezarritako espedienteak erabiltzea.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Laguntza teknikoa eta espedienteak toki erakundera egokitzea ziurtatzea.
- IZFE SAre bidez, udal-mailako espedienteak ezartzeko azpiegitura informatikoko eta laguntza teknikoko zerbitzuak ematea.
- IZFE SAre bidez EsKuA erabiltzeko prestakuntza eskaintzea.

HIRUGARRENA. JARRAIPENA

1. Hitzarmen honen kudeaketa, jarraipena eta ebaluaketa egiteko, Jarraipen Batzorde Misto bat eratuko da, erakunde bakoitzeko bi ordezkari osatuta.

2. Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:



- Garatutako jarduerak eta lortutako helburuak batera jarraitzea eta ebaluatzea.
 - Hitzarmen honen garapenean interpretazio zalantzak argitzea
 - Ekintzak eta hitzarmenaren luzapena aldatzea proposatzea.
 - Hitzarmen hau betetzen dela zaintzea.
3. Batzordeak erakundearen ezarri beharreko espedienteen tipologia aldatu ahal izango du.
 4. Alderdiak eskatuta bilduko da batzordea, komeni den guztietan.
 5. Udalean ezarritako espedienteen erabileraren jarraipena egingo du Gipuzkoako Foru Aldundiak, horretarako Udalak baimena ematen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari IZFE SAREN bitartez erabilerari buruzko datuak (izapidetutako espediente mota bakoitzeko kopurua, ...) eskuratzeko, beti ere proiektuaren balorazioa egin ahal izateko xedearekin, hitzarmena sinatu eta bost urteko epealdian.

LAUGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen hau administratiboa da, eta 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, Atariko Tituluaren VI. kapituluaren xedatutakoaren arabera arautuko da.

Halaber, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko, azaroaren 8ko, 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen da, bere 6.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

BOSGARRENA. HITZARMENAREN ALDAKETA

Hitzarmen hau aldatu egingo da aldeak aho batez hala erabakita, Jarraipen Batzorde Mistoak proposatuta, bi aldeak berariaz eta idatziz hala adostuta.

SEIGARRENA. INDARRALDIA

Hitzarmen hau sinatzen denetik 2026ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

Edozein unetan, epe hori amaitu baino lehen, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez ere lau urtez.

ZAZPIGARRENA. ERANTZUNKIZUNA

Alderdiak adostu dute hitzarmen honen esparruan kudeatzen dituen administrazio-espedienteen legezkotasunaren, izapidetzearen, ebazpenaren eta edukiaren erantzukizuna dagokion udalari edo mankomunitateari dagokiola, nahiz eta beste aldeak emandako bitarteko elektronikoak edo plataforma teknologikoak erabili.

ZORTZIGARRENA. IRAUNGITZEA

Hitzarmen hau iraungi egingo da haren xede diren jarduketak betetzen direnean edo iraungitzeko arrazoiak daudenean.

40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 51.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hauek dira hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.
- b) Sinatzaile guztien ahobatezko erabakia.
- c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.

Halakoetan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahalko dio bereak bete ez dituen alderdiari, epe jakin baten barruan bete ditzan betegabetzat jotako betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimenduan azaldutako epea igaro eta ez betetzeak irauten badu, errekerimendua igorri zuen alderdiak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die badagoela hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak, eta hitzarmena suntsituta dagoela ulertuko da.

- Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judiziala.
- Aurrekoak ez diren bestelako arrazoiak, hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusitak.

Nolanahi ere, salaketa jakinarazi den momentuan hasita dauden jarduerak bukatzeko konpromisoa hartzen dute bi alderdiek.

BEDERATZIGARRENA. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko auzitegiei dagokie hitzarmen hau aplikatu eta garatzearen ondorio diren auziez arduratzeko eskumena.

Eta azaldutakoarekin ados daudela frogatzeko, bi aldeek hitzarmena izenpetzen dute sinaduran adierazitako datan.

Bide Azpiegituretako eta Lurralde
Estrategiako Departamentuko diputatua,

Ikaztegiako Udaleko alkatea,



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Ikaztegietakako Udalaren Hitzarmena - EsKuA

CSV/EKS:

SINAA75460ce-8bea-48ae-b430-6cde11d0e477